

## 2009KO MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN EREDUA

### EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Krisi ekonomikoa nagusi den egunotan, lana da euskal herritarren ardua handienetako bat<sup>1</sup>. Egoera horri aurre egiteko, euskal instituzioek, euren artean udalek, hainbat neurri abiarazi dituzte, eta, kasu batzuetan, “Krisiari aurre egiteko udal planak” egin dituzte.

Testuinguru horren barruan, industria eta zerbitzu sektoreek jasan dituzte lanaren galerarik handienak. Ondorioz, lanaren beherakadak eragin handiagoa izan du gizonengan, emakumeengan baino<sup>2</sup>. Hala ere, azpimarratu gura dugu nola, oraindik ere, emakumeen okupazio tasa gizonena baino txikiagoa den (%59,1 eta %74,8, hurrenez hurren)<sup>3</sup>.

Krisiaren aurrean ekimen berriak abiarazi asmoz, lana sortzera bideratutako neurri guztiak positibotzat hartzen dira, zalantzarik gabe; baina, era berean, uste dugu, beharrezkoa dela emakumeak baztertu ditzakeen genero norabideak aurreikustea eta sahiestea plan horietan.

Era berean, jakinarazi nahi dugu egoera honen ondorioz, gizarte eredu patriarkal eta sexista berpizteko arriskua dagoela (gizon hornitzailea/emakume zaintzailea), orain arte landu dugun erreferente berdintzailearen orde; hau da, emakumezko zein gizonezko hornitzaileak eta zaintzaileak berdintasunean.

JAKITUN gara, beraz, egungo krisi egoeraren barruan hainbat agente sozialek abiaraziko dituzten neurriek eragin ezberdina izango dutela emakumeengan edo gizonengan.

ADIERAZTEN DUGU beharrezkoa dela emakumeen eta gizonen eskubide guztiak osotasunean egikaritzea bermatzea, eta honezkero gure artean dagoen desberdintasunezko arrakala gehiago ez zabaltzea.

Horretarako, orain inoiz baino gehiago, KONPROMISOA HARTZEN DUGU berdintasunaren aldeko tokiko politikak indartzeko. Geure gain hartzen dugu krisiak botatako erronka, ulertzen dugulako udal eredu berdina goetarako bidea egiteko aukera dela.

---

<sup>1</sup> Euskobarometroaren 2008ko azaroko datuak.

<sup>2</sup> EUSTATen datuen arabera, 2008ko laugarren hiruhilekoan, okupazioaren jaitsierak 14.900 gizoni eta 800 emakumeri eragin zien.

<sup>3</sup> Iturri beraren arabera, emakumeen langabezia tasak gizonena baino handiagoa izaten jarraitzen du (%5,3 eta %4,1, hurrenez hurren). Lehenengoak %1,7 egin du gora eta bigarrenak %1,3, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.